

EDITORIALA

Etxeko kontuak

Urtea amaitzean dagoela, berriki jakin izan dugu Eusko Jaurlaritzaren eta Nafar Gobernuaren aurrekontuen xehetasunak eta norabide esan-garatuak. Ez dira bakarrak, zeren eta Erkidegoko lurralde bakoitzean Aldundiek beren aurrekontuen egitasmoak ere argitara eman dituzte. Gehitu diezaiegun udaletakoak eta datorren urterako egitasmoak beren osotasunean aztertzeke parada dugu.

Erakunde handienek harturik, krisi garaian sartu gaituztelarik, ezaugarri bertsuak dituzte egitasmoak: gastu publikoaren gutxitzea, alegia. Bereziki egoera gogor honetan, gastu publikoa murriztea kaltegarria da, egiturazko arazoak larriagotzea dakar eta gizarte babesgabetasuna areagotu egingo du, zalantza izpirik gabe.

Denek, salbuespenik gabe, beren propaganda baliabideak dantzan jarri dituzte ahalik eta gizartea konbentzitzeko beste erremediorik ez dagoela, gerrikoa eta lepoa estutu behar dela, ito arteko atakan geratu arte bada ere. Saldu nahi dugitena gezurtatzerik badugu, eta egin behar dugu. Euskal Herriko gastu publikoa handitzeko marjina egon badago, horretara diru-biltzea handitzea ahalbidetzeko beste moduko zerga-sistema ezarriko balitz. Eta horretarako borondate politikoa eta ausardia besterik ez da behar. Ogasunek diru sarrera handiak ez izateko harturiko erabakiek ondorio larriak eragingo dute jendartearen bizi baldintzetan: osasunean, etxebizitzan, hezkuntzan, gizarte-zerbitzuetan eta beste ataletan murrizketak datoz. Adibide gisa aipatu daiteke datorren urterako bi gobernua Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta eskuratzeko baldintzak gogortu eta diru kopurua jaitsi izana.

Ez dugu beste alternatibarik. Mobilizatu beharra dugu baldin eta politika atzerakoiak aldarazi nahi badugu. Lantokietan eta gizartearen orohar akuilutzat erabili behar ditugu gure proposamenak eta alternatibak. Egon badaudelako eta bidegarriak direlako. Bestea kontua besterik ez da.

Igor Eizagirre y Luis Fernández, elegidos secretarios generales de Gizalan y Hainbat, respectivamente

MEJORAR EN ORGANIZACIÓN PARA RESPONDER A LOS ATAQUES

La pasada semana dos federaciones, Gizalan (24 de noviembre, en Barakaldo) y Hainbat (1 de diciembre, en Donostia) celebraron su III Congreso. Igor Eizagirre y Luis Fernández, respectivamente, fueron elegidos secretarios generales. Ellos, junto a las nuevas permanentes, serán los encargados de velar por el cumplimiento de lo aprobado por ambos congresos, con un objetivo común: mejorar en organización y sindicalización para ser capaces de confrontar, con garantías de éxito, con gobiernos y patronal en una coyuntura como la actual de recortes continuos de derechos.

Igor Eizagirre fue elegido secretario general de la Federación de Servicios Públicos (Gizalan) con el apoyo de 144 de los 167 votos emitidos. Luis Fernández, por su parte, obtuvo 154 sobre 165 votos emitidos.

Las ponencias de ambas federaciones, que recogen sus líneas de actuación durante el próximo cuatrienio, obtuvieron, también, el respaldo casi unánime de los delegados/as de ambos congresos. Esta cohesión interna es, sin duda, un buen inicio cara a los retos marcados.

En su primera intervención como secretario general de Gizalan, Igor Eizagirre destacó que el futuro de la negociación colectiva en el sector público dependerá de la correlación de fuerzas que el sindicalismo sea capaz de lograr. "Tenemos que hacernos respetar por quien tenemos enfrente". "Para ello –continuó– es absolutamente necesario hacer una negociación colectiva organizada, planificada, a ras de suelo, honesta, sin complejos, con luz y taquígrafos, de la que nuestra gente conozca el minuto y resultado".

Finalmente, y en relación a los recortes anunciados por el gobierno de Patxi López, Eizagirre adelantó que "vamos a la movilización y a la socialización. No vamos a aceptar pérdidas de derechos".

Luis Fernández, por su parte, afirmó que es posible parar la reforma de la negociación colectiva en las empresas. "Ya tenemos convenios firmados que nos blindan de la reforma", afirmó, para continuar advirtiendo que "sólo va a haber negociación colectiva real donde seamos capaces de afiliarnos, organizar y pelear".



Arriba una imagen del Congreso de Gizalan. Abajo, de izquierda a derecha, Luis Fernández, nuevo secretario general de ELA-hainbat, junto a su antecesor, Gurutz Gorraiz, y Adolfo Muñoz, Txiki, secretario general de ELA. Gorraiz deja su cargo para dedicarse a otras responsabilidades dentro del sindicato.

ACTOS CONTRA LOS PRESUPUESTOS ANTISOCIALES DE LA CAPV Y NAVARRA
14 DE DICIEMBRE. BILBO. TEATRO CAMPOS
16 DE DICIEMBRE. IRUÑEA. FRONTÓN LABRIT

Igor Eizagirre, secretario general de Gizalan

“PARA DEFENDER LO PÚBLICO NO HAY OTRO CAMINO QUE LA LUCHA”

Igor Eizagirre inició su intervención –primera como secretario general de Gizalan– agradeciendo a los congresistas el rico debate realizado durante los últimos meses en torno a la ponencia, así como el apoyo recibido. También agradeció la presencia de las organizaciones sindicales invitadas, con un recuerdo para los amigos de la CGTP de Portugal, que ese mismo día tenían convocada un huelga general. Asimismo, Eizagirre aprovechó para hacer un llamamiento a los sindicatos presentes –CIG, OSTA, STEE-EILAS y LAB– a sumar fuerzas para plantar cara a los recortes.

El nuevo secretario general de Gizalan continuó destacando la importancia del compromiso militante ante el ataque sin precedentes que estamos viviendo. “Compromiso militante en defensa de una Euskal Herria libre, con una sociedad justa, con unos servicios públicos de calidad y condiciones de trabajo dignas”, afirmó.

CONTRA EL DESMANTELAMIENTO DE LO PÚBLICO

Eizagirre repasó la situación actual, advirtiendo que tras una larga fase en la que el poder neoliberal hizo de la precariedad, la desregulación y las privatizaciones los ejes de su política, ahora quiere dismantelar los servicios públicos. “En los dos últimos años los empleados/as públicos/as hemos sido los paganos/as de la situación. Hemos perdido, aproximadamente, un 13% del poder adquisitivo y empleo. Nos llevan a un modelo a la griega, que fomenta la privatización, destruye empleo y empobrece las condiciones de los tra-

bajadores y trabajadoras”, dijo, para continuar afirmando que el resultado de esas políticas es la pobreza y el desempleo, “por lo que tenemos la obligación y el deber de luchar para cambiarlas”.

El secretario general de Gizalan recalzó que hay alternativa a esas políticas; alternativa que empieza con un cambio en la política fiscal que permita obtener más recursos para servicios sociales.

NEGOCIACIÓN COLECTIVA A RAS DE SUELO

Seguidamente, Eizagirre se refirió al derecho a la negociación colectiva en el sector público, en peligro tras la ley de Función Pública vasca, las últimas imposiciones y el incumplimiento de acuerdos firmados. “Tenemos que defender sí o sí la negociación colectiva. Pero la negociación colectiva no es sentarse en una mesa; es tener correlación de fuerzas, que quien tengas enfrente te respete. Para ello, es absolutamente necesario hacer una negociación colectiva organizada, planificada, a ras de suelo, honesta, con luz y taquígrafos, de la que nuestra gente conozca el minuto y resultado, sin complejos”.

Para que esa negociación colectiva sea posible, Eizagirre explicó que hay que avanzar en la organización y la lucha. “La clave y el reto para avanzar es organizativo, es estar con la gente, socializar las ideas y pelear; no hay otro camino. Sin la gente no somos nada, pero la gente, sin ELA, está perdida”, afirmó.



RECUERDO A LAS VÍCTIMAS DE LA VIOLENCIA

Eizagirre terminó recordando a los afiliados/as y militantes de ELA asesinados por ETA a lo largo de los años: los ertzainas Joseba Goikoetxea, Montxo Doral, Joseba Agirre y Mikel Uribe; los funcionarios de prisiones Angel Mota y Javier Gómez Elosegi, y otros militantes como Jesús María Pedrosa. También tuvo palabras de reconocimiento para los militantes de nuestro sindicato que han sido víctimas de la violencia del Estado, como Mikel Zabalza, para concluir apostando por un nuevo escenario en el que triunfe la democracia y el respeto de los derechos humanos, para todas las personas, tarea en la que ELA está comprometida.

Luis Fernández, secretario general de Hainbat

“LO TENEMOS TODO PARA PELEAR Y PARA GANAR”



Luis Fernández comenzó su primera intervención como secretario general de Hainbat con un agradecimiento compartido a los asistentes y a todas las personas que han hecho posible el III Congreso de esta federación. Posteriormente, pasó a realizar un análisis de coyuntura, tras el cual afirmó que “aunque nosotros y nosotras no tenemos responsabilidad alguna en la generación de la crisis, tenemos una histórica responsabilidad: hacer más sindicato”. “Algo que estamos haciendo ya y que la clase trabajadora con problemas lo está reconociendo”, afirmó. “El reconocimiento que necesitamos no viene de la patronal ni de los partidos ni de las instituciones. Nuestro

reconocimiento está viniendo de la gente que está jodida, de los que nos ven trabajar y pelear cuando les imponen un ERE, de los que nos ven trabajar y pelear cuando les chantajean en su empresa, de los que nos ven en los piquetes, en las negociaciones o en los tajos para que les apliquen el convenio...” redundó, para acabar afirmando que solo tenemos un límite, “nuestro nivel de organización”.

MEJORAR EN MÉTODO

Fernández advirtió, en otro momento, que hay que mejorar en método y perspectiva. “Los problemas nos vienen y tenemos que darles respuesta”, afirmó, para insistir a continuación en la necesidad de convertir cada problema en una oportunidad. “Una oportunidad para despertar conciencias adormecidas. Una oportunidad para traer a la gente hacia nosotros, incorporarla al sindicato, afiliarla y organizarla, para ganar su batalla particular y para aportar en la guerra que nos han declarado”. ¿La clave?: “Definir prioridades, trabajar con método y agenda, hacer planes de trabajo en las secciones sindicales, repartir responsabilidades y, en definitiva, dedicarnos a ser lo que somos: organizadores sindicales”, desveló.

El nuevo secretario general de Hainbat destacó, también, la importancia de la militancia sindical en los tiempos que corren. “La militancia es un tesoro que debemos cultivar, entre otras razones porque solo con más militantes tendremos opciones de ganar”, afirmó, para animar a los presentes a seguir sumando gente a nuestro proyecto. En este sentido, Fernández afirmó que “no es cierto que los jóvenes pasen del sindicato. No es cierto que las personas inmigrantes no se afilien. No es cierto que todos los sindicatos son iguales. No es cierto que la gente no se moviliza”, y animó a seguir rompiendo tabús.

ORGANIZACIÓN Y LUCHA

Como no podía ser de otra manera, la negociación colectiva y las amenazas que se ciernen sobre ella tras la aprobación de la reforma de la negociación colectiva fue uno de los temas estrella de la intervención de Luis Fernández, que recordó que si en Euskal Herria cobramos un 30% más que en el estado español es “porque llevamos décadas peleando nuestras condiciones, porque nos lo hemos ganado a pulso, y no podemos permitir que nos roben lo conseguido”, afirmó. De hecho, se mostró convencido de que la gente va

a reaccionar ante este intento de atraco a las condiciones laborales “porque solo va a haber negociación colectiva real donde seamos capaces de afiliar, organizar y pelear”, al tiempo que añadió que “ya tenemos convenios firmados que nos blindan de la reforma”.

Fernández insistió, por otra parte, en la necesidad de mejorar la metodología de trabajo también en la negociación colectiva, porque los convenios empiezan a ganarse abajo, con la gente. “De la preparación con tiempo de la negociación colectiva, de organizarla en equipo, de repartir responsabilidades, de tener planes de socialización de nuestros objetivos, de buscar las aportaciones de la afiliación, de hacer boletines informativos propios, de realizar asambleas de afiliados/as y generales y, en definitiva, de organizar la negociación colectiva depende el resultado”. “El trabajo más importante es el realizado antes de la primera reunión con la patronal”, aseguró, para concluir afirmando “que cambien las leyes como les plazca. Aquí se ha negociado, se negocia y se va a negociar. La negociación colectiva es correlación de fuerzas y estamos preparados. Lo tenemos todo para pelear y para ganar, y lo vamos a conseguir”.

ZINEZKO BERDINTASUNA HELBURU



Aurtengoan ere iritsi da azaroaren 25a, emakumeek pairatzen duten bortizkeriaren kontrako nazioarteko eguna. Egun ofiziala, protokoloz eta asmo oneko hitzaldiz betea, politikoki oso zuzena, baina inoiz baino areago mugimendu feminista asaldatzera, aldarrikatzera deitzen duena. Zer dio honi buruz lan munduak, zer dio ELAk, klase-sindikatu abertzale den aldetik? Zer ekarpen egin daiteke?

Begibistakoa da gure ikusmolde sindikala bat datorrela diagnostikoan: bortizkeria sexistaren erroa emakume eta gizonen arteko sakoneko desberdintasun estrukturala da, lanean, etxean zein bizitzako esparru guztietan. Honelako baiepen argi eta gogorra azken langilearengana eta herritar guztiengana iristea nahiko genuke. Eta ibilbide honetan, teoria eta mugimendu feministak adierazi duen norabidea ezinbesteko iparra bihurtu da.

Halere, ezin da ukatu zaila dela aipatzea gizonen emakumei, emakume izate hutsa medio, eragiten dieten bortizkeriaren adierazpenak zeintzu eta zer nolakoak diren. Baita lanaren esparruan ere. Antzinako gure kultura patriarkalak dituen sustraiak jende askorentzat antzeman ezinekoak dira

(baita gizartea goitik behera eraldatu eta desberdintasunak desagerrarazi nahi dituzten progresista batzuentzat ere). Areago, sustrai horien adierazpiderik xeheenei dagokienez.

Argi hitz egin beharra dago, ordea. Bortizkeria sexista aipatzerakoan botere desberdintasunaz jardun behar da, gizonentzako zilegitasunik gabeko pribilegioak daudela aitortu, hauek gizarte patriarkal eta kapitalista batentzat ikusezin gertatzen badira ere; gizarte honek, hain zuzen, lan-merkatua ere prisma horren arabera egituratzen du. Lepagainetik horrelako zama kentzeko ahalegina berebiziko transgresioa da, baina ezin dugu emakume eta gizonen arteko eskubide berdintasunaren aldeko borroka, zilegizkoa eta beharrezkoa, baztertu; batik bat berdintasun hori benetakoa izan dadin borrokatu behar dugu.

Berdintasun formalaren eta zinezko berdintasunaren arteko bidegurutzean, aitortu baina betetzen ez diren eskubideen adibide konkretuak enpresa eta lantokietako eguneroko bizitzan topatzen ditugu.

Erakundeen sareak genero-berdintasuna sustatzeko benetako borondate politikoa ote duen epaitzen hasi gabe, galdera bururatzen zaigu: zergatik sortzen dira sarri egitura eta prozedura instituzional handiak, teknikoki oso konplexuak, gero hauek iraunarazteko eta benetan duten xedea beteazteko gutxieneko bermerik ez badute?

Hain zuzen, enpresa eta lantokietan baditugu tresnak, adibidez Berdintasun Planak eta sexu-jazarpen edo jazarpen sexista kasuetarako protokoloak. Ustez, honelako tresnak lagungarri dira lan-esparruan gertatzen diren berdintasun eta bortizkeria sexistarekin lotutako arazoak azaleratzeko. Alabaina, zertarako ditugu Berdintasun Planak, teknikoki akatsik gabek, baina hitzarmen kolektiboetan neurri edo klausula zehatzik sartzea eragiten ez dutenak?

Zer aurrekontu erabakiko da horientzat, enpresak murrizten ari direnean? Nola saihestuko ditugu sexu-jazarpena eta jazarpen sexista alde aurretik, eta ez soilik gertatzen denerako protokoloak eginez? Nola hasiko dugu berdintasun eta bortizkeria sexistari buruzko negoziazio prozesurik, aurrez horrekiko kezka eta formaziorik ez badago? Nola bermatuko dugu emakumeen ahotsa eta interesak prozesuotan aintzat hartuko direla?

Erakundeek prozesuak eta egitasmoak azkartu nahi dituzte, baina horiek gizartean hasi ere egin gabe daude, eta hori etxea teilatutik eraikitzen hastea da. Hots, enpresetan, lantokietan, ikastetxeetan, etab. lan egiten da berdintasun printzipioa zirkinik egin gabe bereganatu balute bezala.

Legeetan eta erakundeetan islatzen den berdintasun formalak beste zerbait eskatzen du: elikatu egin behar da, eskubide konkretuak gauzatu eta erabiliz gorpuztu eta indartu egin behar du, emakume eta gizonen arteko desberdintasuna errotik erazuko duten neurri zehatzen bitartez. Hain zuzen horrela, zinezko berdintasunaren aldeko apustua eginda, emakumeok auekera gehiago izango dugu bortizkeria sexistarik gabe bizitzeko eskubidea bete-betean eta berme osoz izateko.

Beraz, ELAk indarra eta konpromisoa batzen ditu zinezko berdintasunaren aldeko borroka honetan, batez ere lantokietako negoziazio kolektiboan eta kaleko mobilizazio sozialean. Feminismoak sustatu eta eraikitako borroka, guztion artean egiteko borroka, zeina gaur gaixotasun kroniko honen aurka dagoen prebentziorik eta irtenbiderik egokiena baita; gaixotasun latza, esan dezagun, aurten dagoeneko sei emakumeren heriotza ekarri eta beste askoren bizitza egunero kolpatzen baitu.

Jone Bengoetxea,
Berdintasun Alorreko Arduraduna

• En defensa de la negociación colectiva en el comercio de Navarra

Cientos de personas se manifestaron el domingo 27 de noviembre en Iruña en defensa de la negociación colectiva en el sector del comercio. La manifestación, convocada por ELA, CCOO y LAB, recorrió las principales calles de Iruña bajo el lema *Merkataritzaren borrokan - En defensa de la negociación colectiva en el comercio de Navarra*. Olaia Alonso, responsable de ELA-Zerbitzuak en Navarra, denuncia que 8 de los 12 convenios que afectan a las y los trabajadores del comercio se encuentran bloqueados por la patronal.

“El único responsable de este bloqueo es la patronal, que con la excusa de la crisis nos quiere obligar a unas condiciones salariales y laborales congeladas desde hace dos años, con la importante pérdida de poder adquisitivo que ello conlleva. Sin olvidar que partimos de un sector con salarios ya de por sí bajos y condiciones de trabajo precarias: alta temporalidad, largas jornadas, horarios inasumibles, trabajo en festivos que dificulta la conciliación de la vida familiar y laboral... Sin olvidar, por supuesto, la necesidad de reducir el número de convenios en el sector”.

Alonso se muestra muy contenta con la respuesta de los trabajadores y trabajadoras del sector, y recuerda que la dinámica de lucha y movilización continúa. De esta forma los días 22 y 23 de diciembre hay convocadas sendas jornadas de huelga.



• La patronal quiere evitar que se constituya la mesa del metal de Gipuzkoa

ELA, que tiene el 44,86% de la representación, había convocado para el 29 de noviembre tanto a la patronal ADEGI como a los demás sindicatos con representación en el sector para constituir la Mesa Negociadora del Convenio Provincial del Metal de Gipuzkoa. Sin embargo, la mesa no se pudo constituir, al personarse en la reunión una nueva patronal denominada Federación Provincial de Empresarios del Metal de Gipuzkoa, que dice ostentar el 10% de la representación patronal. Ante esta situación, ELA ha realizado otra convocatoria para el 13 de diciembre, una vez hayan sido aclarados los componentes de la representación patronal.



LAN MUNDUAN INDARKERIA SEXISTARI AURRE EGINGO DIOGU

ELAk Bilboko Bidebarrieta udal-liburutegian egin zuen azaroaren 25eko -Emakumeenganako Indarkeria Sexistaren kontrako Nazioarteko Eguna- ekitaldi nagusia. Arazo larri honen inguruan hausnartzea izan zen ekitaldiaren helburu nagusia. Berdintasun alorreko arduradun Jone Bengoetxeak egindako aurkezpenaren ostean Norma Vazquez psikologo eta psikoterapeutak hitzaldia eskaini zuen. Mexikon sortua, Euskal Herrian bizi da Vazquez duela hamar urte. Hitzaldia antzerki esketx laburrekin osatu zen. Estibaliz Villa eta Gabriel Ocina aktoreek, Jose Ignacio Blancoren zuzendaritzapean, indarkeria sexistaren inguruko hainbat gogoeta luzatu zituzten euren ikuskizunean. Goizari amaiera emateko bilkura egin zen Arriaga Plazan. Arratsaldean ELAk bat egin zuen mugimendu feministak antolatu zituen mobilizazioekin.



ZERGA POLITIKA JUSTU BATEN ALDE

Euskal Autonomia Erkidegoko Foru-Aldundiek fiskalitatearen inguruan ELAk egindako proposamenei emandako erantzun etsigarriaren ostean argi mintzatu zen Amaia Muñoa, idazkari nagusiaren-alboko. "Ez dago mobilizatu beste biderik. ELAk informazio kanpaina bati ekingo dio, eta gure proposamenak aldarrikatzeko hainbat ekimen egingo ditugu". Esan eta egin.

Kanpaina azaroaren 28an abiatu zen Donostian, eta hurrengo egunetan jarraipena izan zuen Gasteizen eta Bilbon. Orotara milatik gora izan dira parte-hartu duten ELAko militanteak. Bai Donostian, bai Gasteizen eta bai Bilbon argi gelditu zen, ñabardurak ñabardura, ez dagoela alde handirik Foru-Aldundi ezberdinek iragarri dituzten zerga-politikan. Amaia Muñoak argi utzi zuenez, "proposamenak edukien arabera dira onak edo txarrak, ez nork egiten dituen begirata".

Zerga-politika justu bat exijitzeko kanpaina, ordea, ez zen Bilboko ekitaldiarekin amaitu. Inondik inora. Datozen asteetan ELAk hainbat argitalpen egingo ditu gai honen inguruan, helburu sinple bezain garrantzitsu hau lortzeko: argi gelditu dadila bestelako fiskalitate bat posible dela. Izan ere, Muñoak salatzen duenez, hain-justu hori da gai-sozialen inguruan mintzo garelarik dagoen arazo nagusietako bat: informazio falta.

"Erakundeen arteko eztabaida fiskalean desinformazioa eta ezkutukeria nagusi dira. Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren bileren emaitzei buruz egin diren filtrazioek adierazten dute hori. Dena dela, nabarmentzekoa da eragindako erakunde guztiek parte-hartze soziala ukatzen dutela.



El primer acto de la campaña para exigir otra política fiscal fue en Donostia el 28 de noviembre. En el acto se denunció que la propuesta de la Diputación Foral de Gipuzkoa en materia fiscal es absolutamente insuficiente y que queda muy lejos de las propuestas de ELA.

Oztopoak-oztopo ELAk bere proposamenei eutsi egiten die, eta hauek aplikatzea premiazkoa dela uste du. Hau bereziki nabarmena da zerga-politikan, egungo errealitate estrukturalarekin jarraituz gero iraunarazi egingo baita zerga-sistema bidegabeba nahiz Europar Batasuneko azken postuetan kokatzen den gizarte-babes maila".

Con esta política fiscal sólo habrá más recortes, más paro y más crisis



El segundo acto de la campaña fue en Gasteiz. Los cientos de militantes de ELA reunidos criticaron que la Diputación de Araba no haya mostrado la más mínima intención de modificar las principales líneas de sus políticas (fiscales, sociales, etc.).



El tercer acto se celebró en Bilbao. ELA denunció que el Diputado General de Bizkaia ha decidido no responder a ELA y se ha negado a celebrar una reunión para tratar nuestras propuestas, dando una muestra práctica de qué consideran que es democracia.

• Contra el cierre de INAMA

Miles de personas se manifestaron el sábado 26 de noviembre en Gernika para denunciar el anuncio por parte de la dirección del Grupo FINSA, propietaria de INAMA, de cerrar antes de que acabe el año la planta de Muxika. David Palacios responsable de ELA-hainbat en Gernika-Durango, comparte el enfado y la indignación de toda la comarca de Busturialdea. "Si al final cumplen su amenaza, INAMA será —que nosotros sepamos— la primera empresa que cierra en Euskal Herria por razones medioambientales. La dirección del Grupo FINSA justifica el cierre de la planta de INAMA debido a los problemas de solvencia provocados por la crisis y la imposibilidad de cumplir la normativa medioambiental. Pero es mentira, una burda excusa".

"Si al final Inama baja la persiana, la responsabilidad será de los dueños, que son los que pretenden provocar el cierre desviando trabajo a otras plantas que tiene el grupo en Galicia y dejando a Muxika sin pedidos. Si no, es imposible entender que la dirección haya comenzado a sacar máquinas de Muxika y llevarlas a otras fábricas, cuando aún existe carga de trabajo. Es una desmantelación en toda regla".



• Mendeurrenako erakusketa, Bilbon

ELAren mendeurrena ospatzeko eskualdez eskualde dabilen erakusketa ibiltaria Bilbora helduko da abenduaren 12tik 16ra. Ekitaldi nagusia abenduaren 12an izango da, astelehena, Bilboko udalak Barrainkua 5en duen Kultur Etxean. Bertan, ekitaldirako propio prestatutako bideo bat ikusi ahal izango da, besteak beste.

www.ela-sindikaturua.org

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikaturua.org

Franqueo concertado
nº 08/207